

Gure merkatu segmentua enpresa ertainak edo handiak izango dira, komunikazio arazo handienak dituztenak bait dira. Izan ere, beraien egitura-ereduak konplexuak eta komunikazioa oso motela izaten da. Enpresa txikiak ez dituzte erosiko gure zerbitzuak, haientzat ez da hain lagungarria, enpresa txikietan langile gutxiago daudelako eta komunikazioa ona delako, ordun ez dute behar gure zerbitzuak.

Gure bezero izango diren enpresen ezaugarriak honakoak dira:

- Haztea bilatzen dutenak dira
- Enpresako kide guztien partaidetza sustatu nahi dute
- Idei berriak eta proposamenak bildu nahi dituzte
- Hobekuntza jarraiaren alde egiten dute
- Teknologia berrien aldeko aportua egiten dute

Edozein sektoreetako enpresak izan daitezke- Adibidez: Farmazia arloarekin lotutako enpresak, edo hostalaritzaren banaketa, produkzio...etab

Enpresari antolakuntzak denbora gehiegi kentzen badio, sarbide zaila baldin badu beraien enpresaren datu guztietara (salmentak, langile datuak eta beraien aholku edo kexak...), edo bere antolakuntza sistema oso konplexua baldin badu, gure zerbitzuak lagungarriak eta iha ezinbeztekoa izango dira beraientzat.

Gure merkatua Europar Batasunean eskuragarri egongo da.